

PROBA ESPEZIFIKOA

2011ko PROBA

**ENPRESAREN
EKONOMIA**

PROBA

ERANTZUNAK





AZALPENAK

Iraupena: ordubete.

Hona hemen azterketaren atalak eta haiei dagozkien balorazioak:

- **2 GALDERA TEORIKO, guztira 3 puntu balio dutenak.** Galdera bakoitzak gehienez 1,5 puntu balioko du.
- **2 PROBLEMA, guztira 4 puntu balio dutenak.** Atal honetan, ikasleak hirutik bi problema ebatzi behar ditu. Problema bakoitzak gehienez 2 puntu balioko du.
- **TEST MODUKO 10 GALDERA,** bakoitzak aukeran hiru edo lau erantzun dituela horietatik bakarra zuzena; guztira **3 puntu** balioko dute. Erantzun zuzen bakoitzak 0,3 puntu balioko du; okerreko erantzun bakoitzagatik 0,1 puntu galduko da, eta ez erantzuteak ez du punturik emango. Atal honetako erantzunen batura osoa ez da inola ere negatiboa izango.

- **Galdera teorikoetan eta problemetan, atal bakoitzari dagokion balorazioa eta zuzentzeko irizpideak** letra etzanean eta txikiagoan ageri dira.



GALDERA TEORIKOAK

1. Adieraz ezazu zerga-politika murriztaile batek zer helburu duen, eta nola gauzatu daitekeen. (0,75 puntu helburua adierazteagatik; 0,75 politika nola gauzatu daitekeen zuzen azaltzeagatik)
2. Azaldu ezazu produktibitatearen kontzeptua, eta proposa ezazu industria-produktibitatea handitzeko arrazoizko aukera bat. (1 puntu zuzen definitzeagatik; 0,5 arrazoizko aukera zuzena aipatzeagatik)

PROBLEMAK

Ebatz itzazu hiru problema hauetatik bi.

1. 2009ko laugarren hiruhilekoaren amaieran, EUSTATEk datu hauek aurkeztu zituen, milakotan, EAEko herritarrei buruz:

	GUZTIRA (milakoak)	GIZONEZKOA K (milakoak)	EMAKUMEZ KOAK (milakoak)
16 urteko eta 16 urtetik gorako herritarrak	1.865,3	906,3	959,3
Populazio okupatua	951,2	530,8	420,5
Populazio langabea	90,4	51,2	39,2

Kalkulatu eta azaldu:

- a) Biztanleria aktibo osoaren tasa. (1 puntu)
- b) Emakumezkoen langabezia-tasa. (0,5 puntu)
- c) Gizonezkoen langabezia-tasa. (0,5 puntu)

2. Har ditzagun inbertsio-proiektu hauek:

	<u>0 urtea</u>	<u>1 urtea</u>	<u>2 urtea</u>
1 proiektua	-14.000	10.000	8.000
2 proiektua	-10.000	4.000	8.000

- a) Zein da hobe, baldin eta berreskuratze-epearen edo *pay back*aren irizpidea erabiltzen bada? (0,5 puntu)
- b) Eta balio eguneratu garbiaren irizpidea erabiltzen bada, kontuan hartuta diruaren kostua % 2 dela? (1 puntu)
- c) Hauta ezazu bi irizpideetako bat, eta arrazoitu ezazu zure erantzuna. (0,5 puntu)



3. Sozietate batek saldo hauek (eurotan) ditu bere kontuetan:

Eraikuntzak	50 000
Altzariak	10 000
Hornitzaileak	2 500
Bezeroak	4 500
Kutxa	500
Kapital soziala	45 000
Erreserbak	15 000
Bankuak, k/k.....	2 000
Epe luzerako zorrak	10 500
Salgaiak	10 500
Epe motzerako zorrak	4 500

Datu horien arabera, hau eskatzen da:

a) Aurkeztu ezazu egoera-balantzea ondare-masatan ordenatuta. (1 puntu)

- *Pasiboaren ondare-elementu bat edo ondare-masa bat aktiboan jartzen baduzu, edo alderantziz, atal honek 0 balioko du.*
- *Ez dagokion masa batean jartzen duzun ondare-elementu bakoitzeko 0,20 puntu galduko duzu.*
- *Inolako ondare-masan sartzen ez duzun ondare-elementu bakoitzeko 0,10 puntu galduko duzu.*
- *Atal honetan lortzen den azken puntuazioa ez da inola ere negatiboa izango.*

b) Kalkula ezazu maniobra-funtsa. (0,5 puntu)

c) Azaldu ezazu enpresaren finantza-egoera, maniobra-funtsaren arabera. (0,5 puntu)



TEST MODUKO GALDERAK

Markatu ezazu, biribilduz, erantzun zuzena.

1. Har dezagun taula hau:

Irratiak	Telebistak
0	10
1	8
2	6
3	4
4	2
5	0

Zer aukera-kostu izango luke beste irrati bat ekoizteak?

- a) Telebista bat.
- b) Bi telebista.
- c) Hiru telebista.

2. Zer sektoretakoa da arrain-kontserbak egiten dituen enpresa bat?

- a) Lehen sektorekoa.
- b) Bigarren sektorekoa.
- c) Hirugarren sektorekoa.

3. Ondare-masa honela definitzen da:

- a) Ondarea osatzen duten elementu guztiak dira.
- b) Esanahi ekonomiko-finantzirio bera duten ondare-elementuen multzoa da.
- c) Beren esanahiagatik bestelako balorazio ekonomiko bat duten ondare-elementuak dira.

4. Hau da segurtasun-stocka:

- a) Biltegi batean izan daitekeen material baten izakin kantitate maximoa.
- b) Biltegi batean izan behar den material baten izakin kantitate minimoa.
- c) Eskari-bolumen optimoa.

5. Enpresa batean kostu finkoak kostu aldagarrien berdinak diren produkzio-bolumenari honela deritzo:



- a) Eskari-bolumen optimoa.
b) Ondarezko garbia.
c) Errentagarritasun-atalasea.
6. Bezeroak behar homogeneousak dituzten taldetan bereiztea:
- a) Segmentazioa da.
b) Marketina da.
c) Merkatuko posizionamendua da.
7. Enpresak erreserbetarako erabiltzen badu mozkinaren zati bat, finantziario-iturria honelakoa izango da:
- a) propioa.
b) besterena, epe laburrerakoa.
c) besterena, epe luzerakoa.
d) aldi baterako mailegua da.
8. Kontabilitate-ikuspegiak ondareztat hartzen du:
- a) Enpresaren ondareen eta produkzio-faktoreen multzoa.
b) Enpresaren ondareen eta eskubideen multzoa.
c) Enpresa baten ondareen, eskubideen eta betebeharren multzoa.
9. Hau da kontabilitatearen helburua:
- a) Enpresaren egoera ekonomikoaz eta ondareaz informatzea.
b) Salgaien salerosketa analizatzea.
c) Merkatu-azterketak egitea.
10. Likidezia-ratioak enpresak honetarako duen gaitasuna neurtzen du:
- a) Epe laburrerako ordainketei aurre egiteko.
b) Bere baliabideak erabiltzeko duen eraginkortasuna neurtzeko.
c) Mozkinak sortzeko.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2011ko MAIATZA

**ENPRESAREN
EKONOMIA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2011

**ECONOMÍA DE LA
EMPRESA**

**EBAZPENA: ENPRESAREN EKONOMIA
(2011ko maiatza)**

AZALPENAK

Iraupena: ordubete.

Hona hemen azterketaren atalak eta haiei dagozkien balorazioak:

- **2 GALDERA TEORIKO, guztira 3 puntu balio dutenak.** Galdera bakoitzak gehienez 1,5 puntu balioko du.
- **2 PROBLEMA, guztira 4 puntu balio dutenak.** Atal honetan, ikasleak hirutik bi problema egin behar ditu. Problema bakoitzak gehienez 2 puntu balioko du.
- **TEST MODUKO 10 GALDERA,** bakoitzak aukeran hiru edo lau erantzun dituela horietatik bakarra zuzena; guztira **3 puntu** balioko dute. Erantzun zuzen bakoitzak 0,3 puntu balioko du; okerreko erantzun bakoitzagatik 0,1 puntu galduko da, eta ez erantzuteak ez du punturik emango. Atal honetako erantzunen batura osoa ez da inola ere negatiboa izango.

- **Galdera teorikoetan eta problemetan, atal bakoitzari dagokion balorazioa eta zuzentzeko irizpideak** letra etzanean eta txikiagoan ageri dira.



GALDERA TEORIKOAK

- 1. Adieraz ezazu zerga-politika murriztaile batek zer helburu duen, eta nola gauzatu daitekeen.** (0,75 puntu helburua adierazteagatik; 0,75, politika nola gauzatu daitekeen zuzen azaltzeagatik)

Erantzuna:

Helburua da eskari agregatua mantsotzea; adibidez, ekonomia gehiegi hazten ari denean eta hazkundea moteldu behar denean gehiegizko inflazioa sortzen ari delako. Horren ondorioz, superabiterako joera izaten da. Gastu publikoa murriztuz eta zergak handituz gauzatzen da.

- 2. Azaldu ezazu produktibitatearen kontzeptua, eta proposa ezazu industria-produktibitatea handitzeko arrazoizko aukera bat.** (1 puntu zuzen definitzeagatik; 0,5, arrazoizko aukera zuzena aipatzeagatik)

Erantzuna:

Produktibitateak enpresaren produkzioa eta produkzio-faktoreak erlazionatzen ditu:

$$\text{Produktibitatea} = \frac{\text{Lortutako produkzioa}}{\text{Erabilitako faktoreak}}$$

Faktore baten produktibitateak faktoreetako batekin, gehienetan lanaren faktorearekin, erlazionatzen du produkzio-bolumena. Enpresaren produktibitate globalak enpresaren produkzioa lortzeko behar izan diren faktoreekin erlazionatzen du enpresaren produkzioa. Kasu horretan, osagai guztiak diru-unitatetan baloratu behar dira.

$$\text{Produktibitate globala} = \frac{\text{Lortutako produkzioa}}{\text{Erabilitako faktoreak (lana + kapitala + lehengaiak)}}$$

Kosturik txikienekin produzitzeko eta irabazi handienak lortzeko, enpresak faktore-konbinazio guztiak aztertu behar ditu, ekonomikoki eraginkorrena dena aurkitzeko.

Hona hemen produktibitatea handitzeko zenbait aukera:

- Teknologia berriekin produkzio-prozesuak hobetzea.
- Salmentak handitzea produktuaren kalitatea hobetuz edo marketina ongi planifikatuz.

-...



PROBLEMAK

Ebatz itzazu hiru problema hauetatik bi.

- 1. 2009ko laugarren hiruhilekoaren amaieran, EUSTATEk datu hauek aurkeztu zituen, milakotan, EAeko herritarrei buruz:**

	GUZTIRA (milakoak)	GIZONEZKOA K (milakoak)	EMAKUMEZ KOAK (milakoak)
16 urteko eta 16 urtetik gorako herritarrak	1.865,3	906,3	959,3
Populazio okupatua	951,2	530,8	420,5
Populazio langabea	90,4	51,2	39,2

Kalkulatu eta azaldu:

- a) **Biztanleria aktibo osoaren tasa.** (1 puntu)
- b) **Emakumezkoen langabezia-tasa.** (0,5 puntu)
- c) **Gizonezkoen langabezia-tasa.** (0,5 puntu)

Erantzuna:

a) Jarduera-tasa populazio aktiboaren eta populazio osoaren arteko erlazioa da. Populazio aktiboa da lan egiteko adinean dagoen eta lan egin nahi duen populazioa, hots, langabeen eta okupatuen batura. Horregatik:

Populazio aktibo osoa: $951,2 + 90,4 = 1.041,6$ (milakotan)

Jarduera-tasa: $1.041,6 / 1.865,3 = \% 55,9$

Lan egiteko adina duten 100 pertsonatik 55,9 lanean edo lan bila ari dira.

b) Emakumezko langabeen kopuruaren eta emakumezkoen populazio aktiboaren arteko zatidura da:

Emakumezkoen populazio aktiboa: $420,5 + 39,2 = 459,7$ (milakotan)

Emakumezkoen langabezia-tasa: $39,2 / 459,7 = \% 8,5$

c) Gizonezko langabeen kopuruaren eta gizonezkoen populazio aktiboaren arteko zatidura da:



Gizonezkoen populazio aktiboa: $530,8 + 51,2 = 582$ (milakotan)

Gizonezkoen langabezia-tasa: $51,2 / 582 = \% 8,8$

2. Har ditzagun inbertsio-proiektu hauek:

	0 urtea	1 urtea	2 urtea
1 proiektua	-14.000	10.000	8.000
2 proiektua	-10.000	4.000	8.000

a) Zein da hobea, baldin eta berreskuratze-epearen edo *pay back*aren irizpidea erabiltzen bada? (0,5 puntu)

Erantzuna:

*Pay back*aren irizpidearen arabera, 1 proiektuarekin urte bat eta sei hilabeteetan berreskuratzen da inbertitutakoa, eta 2 proiektuarekin, berriz, urte bat eta 9 hilabeteetan. Beraz, 1 proiektua da hobea.

b) Eta balio eguneratu garbiaren irizpidea erabiltzen bada, kontuan hartuta diruaren kostua % 2 dela? (1 puntu)

Erantzuna:

Balio eguneratu garbia

$$BEG = -D + \frac{Q1}{(1+i)} + \frac{Q2}{(1+i)^2} + \frac{Q3}{(1+i)^3}$$

$$BEG_1 = -14.000 + \frac{10.000}{(1+0,02)} + \frac{8.000}{(1+0,02)^2} = 3.493,27$$

$$BEG_2 = -10.000 + \frac{4.000}{(1+0,02)} + \frac{8.000}{(1+0,02)^2} = 1.610,92$$

Balio eguneratu garbiaren irizpidearen arabera, 1 proiektua hautatu behar da, hark ematen baitu BEG handiena: % 2ko interes-tasa batekin, 1 proiektuak sortuko dituen kuxako fluxuen balio eguneratua handiagoa da 2 proiektuak emango duena baino.

c) Hauta ezazu bi irizpideetako bat, eta arrazoitu ezazu zure erantzuna. (0,5 puntu)

Erantzuna:



Inbertsioa egitea komeni den ala ez erabakitzeke zer metodo erabiliko nukeen hautatzean, balio eguneratu garbia hautatuko nuke; izan ere, berreskuratze-epeak ez du kontuan hartzen diruaren prezioa, eta, jakina, 1 €-k ez du balio bera izango gaur edo hemendik hiru urtera, inflazioa kontuan izan behar baita. Berreskuratze-epeak badu beste alderdi negatibo bat: hasierako gastuak berreskuratzekeo datara arteko fluxuak hartzen ditu kontuan, eta ez hortik aurrerakoak.

3. Sozietate batek saldo hauek (eurotan) ditu bere kontuetan:

Eraikuntzak	50 000
Altzariak	10 000
Hornitzaileak	2 500
Bezeroak	4 500
Kutxa	500
Kapital soziala	45 000
Erreserbak	15 000
Bankuak, k/k.....	2 000
Epe luzerako zorrak	10 500
Salgaiak	10 500
Epe motzerako zorrak	4 500

Datu horien arabera, hau eskatzen da:

a) Aurkeztu ezazu egoera-balantzea ondare-masatan ordenatuta. (1 puntu)

- *Pasiboaren ondare-elementu bat edo ondare-masa bat aktiboan jartzen baduzu, edo alderantziz, atal honek 0 balioko du.*
- *Ez dagokion masa batean jartzen duzun ondare-elementu bakoitzeko 0,20 puntu galduko duzu.*
- *Inolako ondare-masan sartzen ez duzun ondare-elementu bakoitzeko 0,10 puntu galduko duzu.*
- *Atal honetan lortzen den azken puntuazioa ez da inola ere negatiboa izango.*

Erantzuna:

AKTIBOA		ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	
Aktibo ez-korrontea	60.000	Ondare garbia	60.000
Eraikuntzak	50.000	Kapital soziala	45.000
Altzariak	10.000	Erreserbak	15.000
Aktibo korrontea	17.500	Pasibo ez-korrontea	10.500
		Epe luzerako zorrak	10.500



<u>Izakinak</u>		<u>10.500</u>		
Salgaiak	10.500			
<u>Merkataritza-zordunak eta ...</u>		<u>4.500</u>	Pasibo korrontea	7.000
Bezeroak	4.500		Epe laburrerako zorrak	4.500
<u>Erabilgarria</u>		<u>2.500</u>	Hornitzaileak	2.500
Bankuak	2.000			
Kutxa	500			
AKTIBOA GUZTIRA		77.500	PASIBOA GUZTIRA	77.500

b) Kalkula ezazu maniobra-funtsa. (0,5 puntu)

Erantzuna:

$$\text{Maniobra-funtsa} = AK - PK$$

$$MF = 17.500 - 7.000$$

$$MF = 10.500$$

c) Azaldu ezazu enpresaren finantza-egoera, maniobra-funtsaren arabera. (0,5 puntu)

Erantzuna:

Aktibo korrontea pasibo korrontea baino handiagoa da; horrek esan nahi du aktibo korrontearen zati bat pasibo ez-korrontearekin eta ondare garbiarekin finantzatzen ari dela, eta hori maniobra-funtsa da. Maniobra-funtsa positiboa denean —kasu honetan bezala—, enpresak aurre egin ahal izango die pasibo korrontean ageri diren zorrei (urtebete baino lehen ordaindu beharreko zorrei) enpresaren aktibo korrontearekin (urtebete baino lehen diru bihurtu behar duten aktiboekin); horrenbestez, esan dezakegu enpresa horrek ez duela epe laburrerako finantza-arazorik.



TEST MODUKO GALDERAK

Markatu ezazu, biribilduz, erantzun zuzena.

1. Har dezagun taula hau:

Irratiak	Telebistak
0	10
1	8
2	6
3	4
4	2
5	0

Zer aukera-kostu izango luke beste irrati bat ekoizteak?

- a) Telebista bat.
- b) Bi telebista.**
- c) Hiru telebista.

2. Zer sektoretakoa da arrain-kontserbak egiten dituen enpresa bat:

- a) Lehen sektorekoa.**
- b) Bigarren sektorekoa.
- c) Hirugarren sektorekoa.

3. Ondare-masa honela definitzen da:

- a) Ondarea osatzen duten elementu guztiak dira.
- b) Esanahi ekonomiko-finantzario bera duten ondare-elementuen multzoa da.**
- c) Beren esanahiagatik bestelako balorazio ekonomiko bat duten ondare-elementuak dira.

4. Hau da segurtasun-stocka:

- a) Biltegi batean izan daitekeen material baten izakin kantitate maximoa.
- b) Biltegi batean izan behar den material baten izakin kantitate minimoa.**
- c) Eskari-bolumen optimoa.

5. Enpresa batean kostu finakoak kostu aldagarrien berdinak diren produkzio-bolumenari honela deritzo:

- a) Eskari-bolumen optimoa.



-
- b) Ondarezko garbia.
c) Errentagarritasun-atalasea.
6. Bezeroak behar homogeneousak dituzten taldetan bereiztea:
- a) Segmentazioa da.**
b) Marketina da.
c) Merkatuko posizionamendua da.
7. Enpresak erreserbetarako erabiltzen badu mozkinaren zati bat, finantziario-iturria honelakoa izango da:
- a) propioa.**
b) besterena, epe laburrerakoa.
c) besterena, epe luzerakoa.
d) aldi baterako mailegua da.
8. Kontabilitate-ikuspegiak ondareztat hartzen du:
- a) Enpresaren ondareen eta produkzio-faktoreen multzoa.
b) Enpresaren ondareen eta eskubideen multzoa.
c) Enpresa baten ondareen, eskubideen eta betebeharren multzoa.
9. Hau da kontabilitatearen helburua:
- a) Enpresaren egoera ekonomikoaz eta ondareaz informatzea.**
b) Salgaien salerosketa analizatzea.
c) Merkatu-azterketak egitea.
10. Likidezia-ratioak enpresak honetarako duen gaitasuna neurtzen du:
- a) Epe laburrerako ordainketei aurre egiteko.**
b) Bere baliabideak erabiltzeko duen eraginkortasuna neurtzeko.
c) Mozkinak sortzeko.



**PROBAKO GALDEREN ETA EZAGUTZA-ADIERAZLEEN ARTEKO
ERLAZIOA**

GALDERA	EZAGUTZA-ADIERAZLEA
Galdera teorikoak	
1	1.6
2	2.14
Problemak	
1 a)	1.08
1 b)	1.08
1 c)	1.08
2 a)	
2 b)	2.24, 2.25
2 c)	
3 a)	3.3
3 b)	3.5
3 c)	3.7